

2018. urteko txostena  
EUSKAL ELKARGOIA

# Helgarritasunerako Herriarteko Batzordea

Communauté  
D'AGGLOMERATION  
**PAYS BASQUE**  
**EUSKAL**  
HIRIGUNE  
Elkargoa

**DE**  
**TOUTES**  
NOS  
**FORCES !**  
GURE INDAR GUZIEZ !

**EDITORIALA** – Jean-René ETCHEGARAY Euskal Hirigune Elkargoaren lehendakaria,

## Lurralde beti barneratzaileago baten alde!

2017ko urtarrilaren lehenean Euskal Hirigune Elkargoa sortu zenetik, elkargoa bere lurraldean helgarritasuna ezartzen engaiatu da.

Halatan, bada, helgarritasuna gure politika publikoetako batzuetan agertzen zaigu, hala nola «azpiegituak eta mugikortasunak», «lurraldeetako ingeniari-tza, hiri eta baserrialdeetako garapena» etab... Guztiz zeharkakoa den gaia da eta gure proiektu guztietara sartzen da hala behar den bakoitzean.

Egoera horretatik haratago eta gaian aritu nahi dugunez, Elkargoak helgarritasun misio arduradun lanpostu bat sortu du, ikusmolde unibertsalaren balioak sustatzeko asmoz: ororentzat baliagarri eta erabilgarri egitea.

Halatan, bada, egunerokoan ahalegintzen gara eraikinak gero eta atseginagoak bilakarazteko, gure garraiobideak gero eta eraginkorragoak, gure zerbitzuak gero eta helgarriagoak, gure komunikazioa gero eta orori irekiagoak.

Engaiamendu horiek behartzen gaituzte, baina, horrez gain, gure euskal lurraldeak garatzen dituen baloreen bermatzaileak dira ere, hau da, elkartasunaren, partekatzearen eta kohesioaren bermatzaileak.

Horregatik, guztiok lurralde gero eta helgarriago baten egile eta eraikitzaileak izan gaitezen nahi nuke, non gutako bakoitzak bere lekua duen, nor bakoitzaren berezitasunak errespetatuz.

**Jean-René ETCHEGARAY**

Euskal Hirigune Elkargoaren lehendakaria

**AITZINSOLASA** – Daniel OLÇOMENDY Helgarritasunerako Herriarteko Batzordearen burua

## **Lurraldearen helgarritasun politikaren gauzatzeari begia atxikitzea!**

Lurralde Kolektibitateen Kode Nagusiak hala agindurik, Euskal Hirigune Elkargoak Helgarritasunerako Herriarteko Batzordea sortu du.

Lurraldearen helgarritasun politikaren egiazko zutabea da eta Ipar Euskal Herria gero eta barneragarriagoa eta erakargarriagoa bilaka dadin behatzen du, argitzen du eta aritzen da.

Helgarritasuna orori baitagokigu, batzorde horretara hautetsiak eta elkarteak biltzen dira.

Helgarritasuna eguneroko jarduna baita, Euskal Hirigune Elkargoaren zerbitzuetatik ahal bezain hurbil laguntzen dituen lantalde bat sortu du.

Helgarritasuna guztiok partekatu behar dugulako, helgarritasunerako herri eta herriarteko batzordeetako hautetsiak eta teknikariak biltzen dituen sarea eman du plantan.

Helgarritasuna baloreak aldezteara delako, batzordea helgarritasunaren unibertsaltasuna lurralde osoan hedatzera engaiatu da.

Printzipio horiei guztiei jarraiki aritu da batzordea lanean 2018. urte osoan zehar, eta txosten honetan atzemanen duzuen engaiamendu horren emaitza da.

Zuentzat helgarritasunaren bidean aitzin egiteko eta inspirazio iturri gerta dakizuen nahi nuke.

**Daniel OLÇOMENDY**

Helgarritasunerako Herriarteko batzordeburua

# Aurkibidea

<b>HIZTEGIA .....</b>	<b>5. or.</b>
<b>LURRALDEAREN AURKEZPENA .....</b>	<b>6. or.</b>
<b>HELGARRITASUNERAKO HERRIARTEKO BATZORDEA .....</b>	<b>8. or.</b>
a. Kideak .....	10. or.
b. 2018ko helburuetaz .....	P.14
<b>2019ko HELBURUAK .....</b>	<b>32. or.</b>
<b>HELGARRITASUNA LURRALDEAN, HONAKO HAU DA ERE .....</b>	<b>34. or.</b>

# Hiztegia

Ad'AP-HPA: Helgarritasun Programaturako Agenda

PAVE-BLPHP: Bideak eta Leku Publikoak Helgarri egiteko Plana

Sd'AP-HPEZ: Helgarritasun Programaturako Agendaren Eskema Zuzentzailea

ERP-HZE: Herritarrei Zabalduriko Eraikina

IOP-HZI: Herritarrei Zabalduriko Instalazioa

PC-EB: Eraikitze Baimena

AT-LB: Lanetarako Baimena

ATT-HZ: Helgarritasunaren Ziurtagiria

HZE maila: eraikinaren suteetarako sailkapena

HZE mota: eraikinaren suteetarako sailkapena

LIFI: «Light Fidelity» ingeles terminoaren akronimoa

# Euskal Hirigune Elkargoaren

## Iurraldearen aurkezpena

Euskal Hirigune Elkargoak 10 lurraldetako 158 herri biltzen ditu:

### **AMIKUZE :**

Aiziritze-Gamue-Zohazti, Amendüze-Unaso, Amoroitze-Zokotze, Arberatze-Zilhekoa, Arboti-Zohota, Arüe-Ithorrotze-Olhaibi, Arrueta-Sarrikota, Behauze, Behaskane-Laphizketa, Bithiriña, Domintxaine-Berroeta, Etxarri, Gabadi, Garrüze, Ilharre, Labetze-Bizcai, Larribarre-Sorhapürü, Lohitzüne-Oihergi, Lüküze-Altzümarta, Martxueta, Mehaine, Oragarre, Ostankoa, Ozaraine-Eribareita, Pagola, Donapaleu, Uhartehiri.

### **EUSKAL KOSTALDEA - ATURRI:**

Angelu, Baiona, Biarritz, Bidarte, Bokale.

### **ERROBI:**

Arrangoitze, Basusarri, Kanbo, Ezpeleta, Haltsu, Itsasu, Jatsu, Larresoro, Luhuso, Zuraide, Uztaritze.

### **GARAZI-BAIGORRI:**

Ahatsa-Altzieta-Bazkazane, Aintzila, Ainhize-Monjolose, Aldude, Anhauze, Arnegi, Azkarate, Banka, Behorlegi, Bidarrai, Duzunaritze-Sarasketa, Buztintze-Hiriberri, Zaro, Esterenzubi, Gamarte, Irulegi, Izpura, Jatsu, Lakarra, Lasa, Lekunberri, Mendibe, Ortzaize, Baigorri, Donazaharre, Donibane Garazi, Arrosa, Eiheralarre, Uharte-Garazi, Urepel.

### **IHOLDI-OZTIBARRE:**

Armendaritze, Arhantsusi, Bunuze, Hozta, Ibarrola, Iholdi, Irisarri, Jutsi, Landibarre, Larzabale-Arroze-Zibitze, Izura-Azme, Donaixti-Ibarre, Suhuskune.

### **ERROBI-ATURRI:**

Lehuntze, Mugerre, Hiriburu, Urketa, Ahurti, Milafranga.

# Euskal Hirigune Elkargoaren

## Iurraldearen aurkezpena

### BIDAXUNeko HERRIALDEA:

Erango, Bardoze, Burgue-Erreiti, Bidaxune, Akamarre, Gixune, Samatze.

### HAZPARNEko HERRIALDEA:

Aiherra, Lekuine, Beskoitze, Hazparne, Heleta, Izturitze, Bastida, Makea, Mendiondo, Donoztiri, Donamartiri.

### ZUBEROA:

Ainharbe, Altzai-Altzabeheti-Zunharreta, Aloze-Ziboze-Onizegaine, Ürrüstoi-Larrabile, Altzürükü, Barkoxe, Berrogaine-Larüntze, Gamere-Zihiga, Sarrikotapea, Sohüta, Ezpeize-Ündüreine, Etxebarre, Garindaine, Gotaine-Irabarne, Hauze, Idauze-Mendi, Lakarri-Arhane-Sarrikotagaine, Liginaga-Astüe, Lorraine, Ospitalepea, Lexantzü-Zunharre, Lixoze, Ligi-Atherei, Maule-Lextarre, Mendikota, Mitikile-Larriori-Mendibile, Montori, Muskildi, Urdiñarbe, Ozaze-Zühara, Arrokiaga, Urdatx, Zalgize-Donzetebe, Atharratze-Sorholüze, Iruri, Bildoze-Onizepea.

### HEGO LAPURDI:

Ahetze, Ainhoa, Arbona, Azkaine, Biriatsu, Ziburu, Getaria, Hendaia, Senpere, Donibane Lohizune, Sara, Urruña.

### BAZENEKIEN?

Euskal Hirigune Elkargoa Frantzia osoan herri gehien biltzen dituen elkargoa da.

### GILTZA ZENBAKIAK

**158** dira Euskal Hirigune Elkargoa osatzen duten herriak

**14** dira 5000 biztanle baino gehiago dituzten herriak

**41** dira 1000 biztanle baino gehiago dituzten herriak

# Helgarritasunerako Herriarteko Batzordea

---

## Batzordearen zeregina

---

### Batzordea:

- > Ezintasun bereziak dituzten pertsonentzat helgarri diren bizitegien zerrendatzeko sistema antolatzen du;
- > Elektronikoki eguneratzen ditu elkargoaren lurraldean helgarritasun programaturako agenda egina duten herritarrei zabalduko eraikinen zerrenda eta ezintasun bereziren bat dutenentzat helgarri diren eraikinen zerrenda;
- > Urteko txostena egin eta Elkargo Kontseiluari aurkezten dio, eta gero prefektuari igortzen zaio;
- > Egun jadanik dagoena helgarriago egiteko baliagarri izan litezkeen proposamen guztiak egiten ditu.

---

## Batzordearen funtzionamendua

---

- > Helgarritasunerako Herriarteko Batzordeak lantalde bat osatu du 5 hautetsi eta 9 elkartekiderekin, guztiak Helgarritasunerako Herriarteko Batzordetik jalgiak.
- > Batzordeak finkatzen ditu lantaldearen helburuak eta lantaldeak Helgarritasunerako Herriarteko Batzordean aurkezten ditu bere lanak.
- > Batzordearen eta lantaldearen burua Daniel OLÇOMENDY elkargo kontseilari, Turismo, Natura eta Ondarearen arduraduna da. Helgarritasun misioak egiten ditu administrazio jarraipena eta animazioa.



## 2018ko lanak

### Batzordea honako data hauetan bildu da:

- 2018ko urtarrilean: 2017ko txostena onartzea
- 2018ko apirilean: «Ezintasun bereziren bat duten pertsonak ongi hartzea» formakuntza modulua bali egitea
- 2018ko ekainean: 2018ko helburuen aitzinatze egoeraz puntua egitea
- 2018ko irailean: Elkargoaren webgune berriaren maketak aurkeztea
- 2018ko abenduan: mugikortasunaz puntua egitea eta 2018ko txostena prestatzea

### Lantaldea 7 aldiz bildu da 2018an.

- 3 bilkura egin dira «Ezintasun bereziren bat duten pertsonak ongi hartzea» formakuntza moduluaren edukia plantan emateko eta 4 harrera langileen formakuntzarako.

### BAZENEKIEN?

Helgarritasunerako Herriarteko Batzordea sortzea baitezpadakoa da 5000 biztanle baino gehiago dituzten eta lurraldearen antolaketa eta garraio eskumena duten lurraldeetan.

Elkargoburuak izendatzen ditu batzordekideak

### GILTZA ZENBAKIAK

**13:** dira batzordekide diren hautetsi titularrak

**11:** dira batzordekide diren elkarteetako ordezkariak.

# Helgarritasunerako Herriarteko

## Batzordekideak

**Daniel OLÇOMENDY**

Batzordearen eta lantaldearen burua

**Gilbert DUBLANC**

Amikuzeko hautetsi titularra

**Colette MOUESCA**

Euskal Kostaldea-Aturriko hautetsi titularra

**Jean-Michel SERRANO**

Errobiko hautetsi titularra

Lantaldeko kidea

**Beñat ARRABIT**

Garazi-Baigorriko hautetsi titularra

**Jean-Michel OLHATS**

Iholdi-Oztibarreko hautetsi titularra

**Roland DAMESTOY**

Errobi-Aturriko hautetsi titularra

**Yves PONS**

Bidaxuneko hautetsi titularra

Lantaldeko kidea

**François DAGORRET**

Hazparne Herrialdeko hautetsi titularra

**Michel IBARRA**

Zuberoko hautetsi titularra

**Martine ANSAULT-LECUONA**

Hego Lapurdiko hautetsi titularra

Lantaldeko kidea

**Claire SARTHOU**

EHEaren helgarritasun arduraduna

**Gabriel BELLEAU**

Amikuzeko ordezkoko hautetsia

**Marie-Ange THEBAUD**

Euskal Kostaldea-Aturriko ordezkoko hautetsia

**Henri SAINT-JEAN**

Errobiko ordezkoko hautetsia

**Pierre EYHERABIDE**

Garazi-Baigorriko ordezkoko hautetsia

**René ETCHEMENDY**

Iholdi-Oztibarreko ordezkoko hautetsia

**Christian PAILLAUGUE**

Errobi Aturriko ordezkoko hautetsia

**Lucien COHERE**

Bidaxuneko Herrialdeko hautetsi titularra

**Jean-Pierre LAGOURGUE**

Hazparneko Herrialdeko ordezkoko hautetsia

Lantaldeko kidea

**Dominique BOSQ**

Zuberoko ordezkoko hautetsia

**Sandrine ESCARTIN**

Hego Lapurdiko ordezkoko hautetsia

**Robert HOURCADE**

Euskal Herri-Aturriko

Mugikortasunen Sindikatuaren hautetsi titularra

**Georgia GALLAIS**

Frantziako Elbarrituen Elkartea

Ezintasun motorea

**Henri LAVALLEE**

Miopatien aurkako Frantziako Elkartea

Hainbat ezintasun motore

**Jean BERCHERIE**

Ezintasunen bat duten heldu nahiz gazteen elkartea

Ezintasun kognitiboa

Lantaldeko kidea

**Iñaki ÇALDUMBIDE**

Ezintasuna duten helduentzako bizi lekua

Ezintasun kognitiboa

Lantaldeko kidea

**Brigitte BERCKMANS-ESPI**

*Handiplage*

Ezintasun motorea

Lantaldeko kidea

**Nicolas BACHOFFER**

Kirol egokitua

Ezintasun mota oro

**Dominique MAGNARD**

*Signes Libres*

Entzuteko ezintasuna

Lantaldeko kidea

**Christian GONZALES**

Euskal Herri-Aturriko

Mugikortasunen Sindikatuaren ordezkoko hautetsia

**Paulette MONGABURRU**

Frantziako Elbarrituen Elkartea

Ezintasun motorea

Lantaldeko kidea

**François HERVE**

*Association Fraternelle des Aveugles*

Ikusteko ezintasuna

Lantaldeko kidea

**Pascal ANDIAZABAL**

Valentin Haüy elkartea (AVH)

Ikusteko ezintasuna

Lantaldeko kidea

**Mayie LEPAROUX**

*Génération Mouvements 64*

3. adinekoak

**Ramon ESPI**

*Handiplage*

Ezintasun motorea

Lantaldeko kidea

**Stéphane MAILLART**

*Signes Libres*

Entzuteko ezintasuna

Lantaldeko kidea

# Helgarritasunerako Herriarteko Batzordearen 2018ko helburuetaz

## 1. helburua

Helgarritasunerako Herriarteko Batzordearen eta lantaldearen berri ematea

---

## Bideoa

---

- Helgarritasunerako Herriarteko Batzordeari buruzko bideo bat egin da. Elkargoaren YouTube katean ikus liteke: <https://youtu.be/5FN7ptag3j0>.
- Azpituluekin eta frantsesezko zeinu hizkuntzan emanik da.

---

## Baskinfo

---

- Lurralde osoko postontzi orotara banatzen den Elkargoaren aldizkaria da.
- Helgarritasuna lehen tokian ematen duten bi artikulu egin ziren 2018ko ekain-abenduko zenbakietan.

## Eskutitzak

- 2018ko otsailean, lurraldeko auzapez orori igorri zitzaien eskutitz bat Helgarritasunerako Herriarteko Batzordearen eta lantaldearen sortzea jakinarazteko.
- 2018ko apirilean, 5000 biztanle baino gehiagoko herrietako auzapez orori igorri zitzaien eskutitz bat Helgarritasunerako Herrietako eta Herriarteko Batzordeen sarea plantan emateko.

### BAZENEKIEN?

Helgarritasunerako Herriarteko Batzordearen bideo ekoizpen oro frantsesezko zeinu hizkuntzaz emanak dira.

Frantsesezko Zeinu Hizkuntzako interprete lanbideak unibertsitate mailako diploma behar du. Deontologia kode baten pean da

### GILTZA ZENBAKIAK

**170:** dira BASKINFO aldizkariaren ale kopurua.

## 2. helburua

Helgarritasunerako Herrietako Batzordeak eta Herriarteko Batzordea biltzen dituen sarea plantan ematea

---

## Sarearen zeregina

---

Sareak honako xede hauek ditu:

- Lurraldean helgarritasunaren ikusmolde partekatua garatzea.
- Helgarritasunaren gaian diren jokabide onen gaineko solas eta partekatzea bultzatzea.
- Urteko txostenen koherentzia laguntzea

---

## Sarearen funtzionamendua

---

- Sareak hautetsiak biltzen dituen eta teknikariak biltzen dituen instantzia bana ditu. Sareko hautetsiek teknikarien sarearen helburuak ezartzen dituzte. Helgarritasunerako misio arduradunak sarearen administrazio jarraipena eta animazioa egiten ditu.

---

## 2018ko lanak

---

Hautetsien sarea honako data hauetan bildu da:

- 2018ko irailean: sarea plantan ematea – funtzionamendua onartzea.
- 2018ko abenduan: urteko txostenei buruzko solasa – teknikarien sarearen 2019rako helburuak ezartzea.

## **BAZENEKIEN?**

Helgarritasunerako Herrietako Batzordeen eta Herriarteko Batzordearen sortzea eta funtzionamendua Lurralde Kolektibitateen Kode Nagusiaren L 2143-3 artikulua dioenaren pean dira.

Artikulu horrek honela dio: «Herrietako eta herriarteko batzordeak batera gertatzen balira, zainduko dute dauden eraikinen helgarritasunari buruz, bideetako helgarritasunari buruz edota leku publikoen eta garraioen helgarritasunari buruz bakoitzak bere eskumenen arabera egiten dituen diagnostikoak besteenekin koherentzia izan daitezen.»

## **GILTZA ZENBAKIAK**

2018an:

**13:** dira lurraldean diren Helgarritasunerako Herri Batzordeak;

**13:** dira sarean parte hartzen duten hautetsiak;

**19:** dira sareko teknikariak (eraikinak eta bideak).

# Sareko kideak

## Helgarritasunerako Herri Batzordea/Helgarritasunerako Herriarteko Batzordea

### **Joëlle TURCAT**

Hautetsia  
ANGELUKO Herriko Etxea

### **Franck ETAVE**

Bide teknikaria  
ANGELUKO Herriko Etxea

### **Pierre BRUNEAUX**

Eraikinen teknikaria  
ANGELUKO Herriko Etxea

### **Jérôme AGUERRE**

Hautetsia  
BAIONAKO Herriko Etxea

### **Gilles DELHAIE**

Bide teknikaria  
BAIONAKO Herriko Etxea

### **Philippe DUMONT**

Eraikinen teknikaria  
BAIONAKO Herriko Etxea

### **Brigitte PRADIER**

Hautetsia  
BIARRITZEKO Herriko Etxea

### **Franck DRUESNES**

Teknikaria  
BIARRITZEKO Herriko Etxea

### **Florence POEYUSAN**

Hautetsia  
BIDARTEKO Herriko Etxea

### **Stéphane PODEUR**

Teknikaria  
BIDARTEKO Herriko Etxea

### **Elise SEMETEYS**

Teknikaria  
BIDARTEKO Herriko Etxea

### **Louis DARRIBEROUGE**

Hautetsia  
BOKALEKO Herriko Etxea

### **Beñat ERRECA**

Zerbitzu Teknikoen zuzendaria  
BOKALEKO Herriko Etxea

### **Henri SAINT-JEAN**

Hautetsia  
KANBOKO Herriko Etxea

### **Gilles MEDEVIELLE**

Zerbitzu Teknikoen zuzendaria  
KANBOKO Herriko Etxea



**Henri ANIDO**

Hautetsia  
ZIBURUKO Herriko Etxea

**André SARDIGNE**

Bideetako Zerbitzuen zuzendaria  
ZIBURUKO Herriko Etxea

**Jean-Bruno BOYE**

Eraikinetako Zerbitzuen zuzendaria  
ZIBURUKO Herriko Etxea

**Martine ANSAULT-LECUONA**

Hautetsia  
HENDAIAKO Herriko Etxea

**Christophe CALVO**

Bide teknikaria  
HENDAIAKO Herriko Etxea

**Yves DARRIEUMERLOU**

Eraikinen teknikaria  
HENDAIAKO Herriko Etxea

**Stéphane ALVAREZ**

Hautetsia  
DONIBANE LOHIZUNEKO Herriko Etxea

**Jean-Marc DELPECH**

Teknikaria – Bideak  
DONIBANE LOHIZUNEKO Herriko Etxea

**Stéphane LERCHUNDI**

Eraikinen teknikaria  
DONIBANE LOHIZUNEKO Herriko Etxea

**Xavier BOHN**

Hautetsia  
SENPEREKO Herriko Etxea

**Patrick ELIZALDE**

Zerbitzu Teknikoen Zuzendaria  
SENPEREKO Herriko Etxea

**Martin TELLECHEA**

Hautetsia  
URRUÑAKO Herriko Etxea

**Patrick LATRON**

Bide teknikaria  
URRUÑAKO Herriko Etxea

**François SUSPERREGUI**

Eraikinen teknikaria  
URRUÑAKO Herriko Etxea

**Jean-Michel SERRANO**

Hautetsia  
UZTARITZEKO Herriko Etxea

**Maxime DIRIBARNE**

Zerbitzu Teknikoen zuzendaria  
UZTARITZEKO Herriko Etxea

**Jean-Yves INCHAUSTI**

Administrazio teknikaria  
UZTARITZEKO Herriko Etxea

**Daniel OLÇOMENDY**

Hautetsia  
EHE

**Claire SARTHOU**

EHEaren Helgarritasun arduraduna

### 3. helburua

Elkargoaren webgune berria gauzaten laguntzea

---

## Elkargoaren helburuak gogora ditzagun

---

- Herritarren nahiei hobeki erantzuteko asmoz, Elkargoak webgune berria sortzea erabaki du.
- Webgune hori zeinahi ezintasun (ikustekoa, entzutekoa, kognitiboa, motorea) dutenentzat helgarri izan dadin hartu du helburu. Halatan, bada, webgune berriak Administrazioentzako Helgarritasun Erreferentzia Orokorraren AA maila bete dezan nahi du.

---

## 2018ko lanak

---

- Helgarritasunerako Herriarteko Batzordearen ezohiko bilkura antolatu zen 2018ko irailaren 26an.
- Elkargoaren Komunikazio Zerbitzuak proiektuaren etapa nagusien eta giltza puntuen aurkezpena egin du.
- Bilkura horretan, batzordekideei *Access First* sozietatearen aholkularitza eskaini zaie, Elkargoaren laguntzailea baita proiektuan. Webguneen helgarritasunari buruzko araudiaren eta erabileren gaineko puntua egin da osoki.
- 2019an, elkarteei eskatuko zaie webgunearen «beta» bertsioaren testa egin dezaten.

---

# Helgarritasun digitalerako erreferentea

---

- Araudiaren asmoak betetze aldera, Elkargoak helgarritasun misioaren arduraduna izendatu du helgarritasun digitalerako erreferente.
- Zeregin hori betetzeko, 3 eguneko formakuntza egin zuen 2018an, Parisen, webguneen helgarritasun gaietan espezialista den *Access42* sozietateak emanik.

## BAZENEKIEN?

Elkargoaren webgunea aditu independente batek ikuskatuko du eta Administrazioentzako Helgarritasun Erreferente Orokorreara egokitzen denaren adierazpena egingen du.

Adierazpen hori Elkargoaren webgunean argitaratuko da.

## GILTZA ZENBAKIAK

**2009:** komunikazio zerbitzuen helgarritasun erreferentea sortzen duen dekretua eman zen urtea da.

**3:** dira Administrazioentzako Helgarritasun Erreferentze Orokorrean dauden mailak. A maila apalena da eta AAA maila gorena. Estatuak AA mailara heltzea gomendatzen du.

## 4. helburua

Elkargoaren lurralde osoan diren Leku Publikoen eta Bideen Helgarritasunerako Planak eta Helgarritasun Programaturako Agendak zerrendatzea

### Testuingurua

- Lurralde Kolektibitateen Kode Nagusiak agintzen du Helgarritasunerako Herriarteko Batzordeak egiaztatuko duela dauden eraikinen, bideen, leku publikoen eta garraioen helgarritasun egoera.
- Horren harira, Batzordeak jakin nahi ukan du zenbat Helgarritasun Programaturako Agenda eta Bideak eta Leku Publikoak Helgarri egiteko zenbat Plan dauden lurraldean.

### Erabili diren baliabideak eta metodologia

- Helgarritasun misioak gidatzen du errolatzea. Elkargoaren geografia informaziorako sistemaren zerbitzuaren laguntza du.
- Errolatzea lurraldeko herri guztietan egiten da, baita 5000 biztanle baino gehiagoko herrietan ere

### 2018ko lanak

- Errolatzea bidean da. Herri guztiak izan dira harremanetan jarriak. Honako informazio hau ziurtatu da:
  - Helgarritasun Programaturako Agenda eman duzue?
  - Bideak eta Leku Publikoak Helgarri egiteko Plana egin duzue (PAVE-BLKHP)? (1000 biztanle baino gehiagoko herrientzat).
- 138 herri ikuskatu dira 2018an. Errolatzeko 23 herri daude oraino.

## **BAZENEKIEN?**

Helgarritasun Programaturako Agenda (Ad'AP-HPA) eraikinaren helgarritasunari buruzko dokumentua da.

Bideak eta Leku Publikoak Helgarri egiteko Plana (PAVE-BLKHP) bideen helgarritasunari buruzko dokumentua da.

## **GILTZA ZENBAKIAK**

### **2018an**

**99:** dira Helgarritasun Programaturako Agenda eskaria egin duten lurraldeko herriak.

**10:** dira «Helgarritasun Programaturako Agenda» dokumentua egin bidean duten herriak.

**11:** dira «Bideak eta Leku Publikoak Helgarri egiteko Plana» dokumentua eginik duten herriak».

**3:** dira «Bideak eta Leku Publikoak Helgarri egiteko Plana» dokumentua egiteko bidean diren herriak».

# Herritarrei zabalik diren lurraldeko eraikinen erroldatzeari beha

---

## Testuingurua

---

- Lurraldeko Kolektibitateen Kode Nagusiak agintzen du Helgarritasunerako Herri Batzordeak eta Herriarteko Batzordeak elektronikoki egunera ditzaten herriko nola herriarteko lurraldean helgarritasunerako agenda eginik duten herritarrei zabalduko eraikinen zerrenda eta ezintasun berezia dutenentzat helgarri diren eraikinen zerrenda.

---

## Erabili diren baliabideak eta metodologia

---

- Helgarritasun misioak gidatzen du erroldatzea. Ezintasuna ezagutua zaion langile bat kontratatu da helgarritasun misioa azkartzeko eta herritarrei zabalik diren eraikinen erroldatzen laguntzeko.
- Elkargoaren geografia informazio sistemaren zerbitzuak laguntzen du urraspide hori.
- Errolda 5000 biztanle baino gutxiagoko lurraldeko herri guztien partez egiten da.
- 5000 biztanle baino gehiago duten herrien kasuan, berriz, Helgarritasunerako haien Herri Batzordeak egiten du herrian diren herritarrei zabalik diren eraikinen zerrenda, salbu Hego Lapurdiko Eremuko herrien kasuan, errolda hori Herriarteko Batzordearen esku utzi baitzuten 2016an.

## 2018ko lanak

- Herritarrei Zabalduriko Eraikin guztien errolda abian da jadanik. Elkargoaren Geografia Informazio Sistemaren bidez egiten da (SIG-GIS).
- Lehen etapa batean, Suteen eta Sokorrien Departamentu Zerbitzuaren datu basea Elkargoaren GISean sartu da. Datu base horren osatzeko, fitxa eredu bat sortu da.
- Bigarren etapa egin bidean da. Herri bakoitzean bildu den informazioa egiaztatu eta eredu den fitxa osatzen da.
- Gaur egunean, 138 herri dira erroldaturik.

### BAZENEKIEN?

Herritarrei Zabalik den Eraikin baten jabe pribatu nola publikoak helgarritasun programaturako agenda bat egin behar du bere eraikina helgarritasun arauetan ez bazen 2015eko urtarrilaren lehenean.

Asmo txarreko enpresek betebeharrak horretaz baliatzen dira merkatariei, lanbide liberalei eta abarrei dirua kentzeko. Kontuan har ezazu Estatuaren zerbitzuek dutela helgarritasun akatsa gaztigatzeko eskumena. (Harremanetarako: DDTM-LIDZ Angelu: 05 59 15 19 63 edo DDTM-LIDZ Paue: 05 59 80 87 73 (Zuberoko herrietarako) edo <https://www.ecologique-solidaire.gouv.fr/ladap-agenda-daccessibilite-programmee>).

Jabe bakoitzak, helgarritasun lanak egin ondoren, Prefekturara igorri behar du eraikina helgarria dela frogatzen duen agiria. Dokumentuaren kopia igorri behar zaio helgarritasunerako Herri Batzordeari edo Herriarteko Batzordeari.

### GILTZA ZENBAKIAK

**951:** dira Herriarteko Batzordeak erroldatu dituen herrien eraikinak.

**112:** dira Herriarteko Batzordeak erroldatu dituen Elkargoaren eraikinak.

**144:** dira Elkargoak erroldatzen dituen 5000 biztanle baino gutxiagoko lurraldeko herriak.

**5:** dira herritarrei zabalik diren eraikinak Elkargoak erroldatzen dizkien 5000 biztanle baino gehiagoko Hego Lapurdiko herriak

## 5. helburua

Elkargoaren Helgarritasun Eskema Zuzentzailea-Helgarritasun Programaturako Agendaren jarraipena egitea (Sd'AP-HPEZ)

---

### Testuingurua

---

- Elkargoak Euskal Herri-Aturriko Mugikortasun Sindikatuaren eskuetan utzi du garraioen eskumena.
- Sindikatuak hartzen duen lurraldea Euskal Hirigune Elkargoaren lurralde osoa gehi Tarnozeko hiria da (40).
- Gaur egun, helgarritasun Programaturako 2 Eskema Zuzentzaile daude: 1 Chronoplus sarerako eta 1 Hegobus sarerako.

---

### Erabili diren baliabideak eta metodologia

---

- Estatuaren zerbitzuekin mintzatu ondoren, dauden Sd'AP-HPEZak berrikustea erabaki da, Mugikortasunen Sindikatuaren eskuetan utzi diren herriarteko lineak sartu eta Elkargoaren lurralde berria hartzen duen helgarritasun programaturako eskema zuzentzaile bakarra sortzeko. Eskema berri horrek bere egin beharko ditu gutxienik lehen bi eskemetan ziren helburuak.
- Mugikortasunen Sindikatuak gidatzen du dosierra Elkargoaren Helgarritasun Misiorekin eta Helgarritasunaren Herriarteko Batzordearekin elkarlanean.



# 2018ko lanak

Mugikortasunen Sindikatua 2018ko abenduko Helgarritasunerako Herriarteko Batzordearen bilkuran mintzatu zen.

Sindikatuaren aurkezpen osoa egin zen han, honako hauek zehaztuz:

- Duen antolaketa sistema;
- Hartzen duen lurraldea;
- Ustiatzen dituen lineak;
- Proiektu nagusiak (Tram'bus, Hiri Bidaietako Plana, Helgarritasun Programaturako Eskema Zuzentzailea, etab...).

Helgarritasun Programaturako Eskema Zuzentzaileari dagokionean bereziki, Mugikortasunen Sindikatua batzordeari jakinarazi dio bulego aztertzaile baten laguntza eskatzeko asmo duela, jadanik badauden 2 HPEZak batu eta HPEZ berria sortzeko.

Horren egiteko sostengua eskatu dio batzordeari. Batzordearen lantaldeak egingen du dosierraren jarraipena.

## BAZENEKIEN?

Helgarritasunerako Eskema Zuzentzailea – Helgarritasun Programaturako Agenda garraioen helgarritasunari buruz ari den dokumentua da.

Behin berrikusia izan eta azken dokumentua Elkargo Kontseiluak bozkatuko du eta Prefekturara igorriko da onar dezan.

## GILTZA ZENBAKIAK

**24:** dira 2018an arauetan eman diren lehentasunezko geldilekuak.

## 6. helburua

Harrera-langileentzako formakuntza modulua plantan ematea

---

### Testuingurua

---

- Helgarritasun araudiak herritarrei zabalik diren eraikin guztietan helgarritasun erregistroa plantan ematea aurreikusten du. Erregistro horrek, bereziki lehen kategoriako eraikinetatik 4. kategorietarainokoen kasuan, ezintasunen bat duten pertsonak hartzeko ardura duten langileen formakuntza jardunak azaltzen dituen agiri bat dauka, enplegatzailerak sinatu eta urtero eguneratzen duena.
- Elkargoari eta elkargokide diren herriei betebeharrak hori betetzen laguntzeko, Helgarritasunerako Herriarteko Batzordeak bere lantaldearen esku utzi du formakuntza modulu baten egitea.

---

### Erabili diren baliabideak eta metodologia

---

- Helgarritasunerako Herriarteko Batzordearen lantaldeak gidatzen du formakuntza modulua plantan ematea.
- Lantaldeak ere egiten ditu formakuntzak.
- Lantaldeko kideak (hautetsiak eta elkarteak) urrik aritzen dira lanean. Elkargoak bere gain hartzen du formakuntzen antolaketa eta gastuak.

## 2018ko lanak

- Formakuntzaren edukia ezartzeko, lantaldea hiru aldiz bildu zen 2018ko hastapenean (urtarrila-otsaila-martxoa).
- Abiatu diren lanek honako antolaketa hau ezartzeko aukera eman dute:
  - Ezintasun mota oro (entzunezkoa, kognitiboa, ikustekoa, motorea) eta bakoitza lantegi baten langaia da.
  - Lantegi bakoitzaren animatzaileak lantegi horrek lantzen duen ezintasun motaz arduratzen diren elkarte bat edo bi dira.
  - Lantegi bakoitzerako ereduazko eduki bat ezarri da. Helburu nagusia partaide bakoitza egoeran kokatzea da.
- Lantegien edukiaz gain, Helgarritasunerako Herriarteko Batzordeko kideak fitxa praktikoak egiten aritu dira ere. Ezintasun bakoitzerako fitxa 1 (entzunezkoa, kognitiboa, ikustekoa, motorea) ezarri da. Ezintasunen bat duen pertsona batekin jokatzeko moldearen funtsezko puntuak hartzen ditu. Fitxa horiek formakuntzan parte hartu dutenetako bakoitzari emateko dira.
- Azkenik, lantaldeak galdetegi bat egin du formakuntza ebaluatu eta zerbait zuzendu beharko balitz haren egiteko.
- 2018ko apirilaren 20an, lantaldeak bere lanen emaitzak aurkeztu zizkien batzordekide titular eta ordezkoguztiek. Kide guztiek «testatu» dute lantegi bakoitza 14:00etatik 17:00etara. Test horren ondoren, batzordekideek formakuntzaren edukia onartu dute.
- Formakuntzak 2018ko irailean hasi dira, hilean formakuntza bat eginez. Emaitzak oso onak dira eta ez dira aldaketak egin behar izan.

## **BAZENEKIEN?**

Formakuntzak urririk dira eta Elkargoaren kide diren herri guztietara zabalik.

Elkargoaren lokaletan egiten dira:

- Herritarrentzako Zerbitzuen Etxean, Maulen,
- Zuberoko Eremuaren egoitzan, Donazarren,
- Hego Lapurdiko Eremuaren egoitzan, Urruñan.

Eta «Ororentzako Etxean» ere bai, Elkargoari urririk utzi baitio Angeluko Herriak.

## **GILTZA ZENBAKIAK**

**24:** dira 2018an arauetan eman diren lehentasunezko geldilekuak.

# 2019rako helburuak

---

## Testuingurua

---

- 2018ko abenduko saioan, Helgarritasunerako Herriarteko Batzordeko kideek Batzordearen 2019rako helburuak erabaki zituzten.

---

## Helgarritasunerako Herriarteko Batzordearen 2019rako helburuak

---

- Euskal Herriko-Aturriko Mugigarritasunen Sindikatua laguntzea honako hauetan:
  - Tram'busa gauzatzen
  - Hiriko Bidaietako Plana egiten
  - Helgarritasun Programaturako Eskema Zuzentzailearen berrikusten
- Euskal Hirigune Elkargoaren lurraldeko herrietan diren herritarrei zabalduriko eraikinen erroldatzen jarraitzea
- Harrera-langileen formakuntzarekin jarraitzea. «Igerileku» modulu bat plantan ematea.

# 2019ko helburuak

---

## Testuingurua

---

- 2018ko abenduko bilkuran, helgarritasunerako herri eta herriarteko batzordeen sareko hautetsiek 2019ko helburuak erabaki zituzten.

---

## Helgarritasunerako Herri eta Herriarteko Batzordeen sareko 2019rako helburuak

---

- Bideetako teknikarien helgarritasunerako herri eta herriarteko batzordeen sareak honako hauek landuko ditu:
  - «Bus» kaien antolatzeko erreferentzial bat plantan ematea (Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatuarekin elkarlanean).
  - Oinezkoen pasabideen detektatzeko gaitasuna
  - Hilerrien antolaketa
- Eraikinen teknikarien helgarritasunerako herri eta herriarteko batzordeen sareak honako hauek landuko ditu:
  - Helgarritasun produktu berezien erreferentzial bateratua plantan ematea.

# Helgarritasuna lurraldean honako hau da ere:

## ❖ Elkargoaren Helgarritasun Programaturako Agenden jarraipena

---

### Testuingurua

---

- 2014ko azaroaren 5eko 2014-1327 Dekretuaren arabera, herritarrei zabalik den eraikin bat edota herritarrei zabalik diren instalazioak dituen jabe orok helgarritasun programaturako agenda bat aurkeztu behar du baldin eta 2015eko urtarrilaren lehenean helgarritasun arauetan ez bazen eraikin edo instalazio hori.

---

### Erabili diren baliabideak eta metodologia

---

- Helgarritasun misioak gidatzen du helgarritasun programaturako agenden jarraipena.
- Eraikinen Ondarearen eta Baliabide Orokorren Zuzendaritzak du lanak eta haien jarraipena egiteko ardura.

---

### 2018ko jarraipena

---

- Euskal Hirigune Elkargoa sortu baino lehen helgarritasun programaturako 6 agenda aurkezturik ziren (Amikuze – Euskal Kostaldea-Aturri – Garazi-Baigorri – Hazparneko Herrialdea – Zuberoa – Hego Lapurdi).

---

---

## 2018ko jarraipena

---

- Helgarritasun Programaturako Agenda bakoitzaren jarraipen txosten bana egin eta Prefekturara igorri da.
- Errobi Eremuaren lurraldean dauden 13 eraikinei buruzko helgarritasun programaturako agenda berri bat egin zen eta aurkeztu 2018ko abuztuan. Dokumentua Estatuaren zerbitzuek balidatu zuten 2018ko azaroaren 23an. Lanak 2019tik 2024 artean eginen dira).

---

---

## 2018ko lanak

---

- Amikuzeko Ad'AP-HPEZa:
  - Hartzaindegiko lanak bururatu dira.
  - Donapaleuko errugbi estadioko, mediatekako, herritarrentzako zerbitzuen etxeko eta futbol estadioko lanetarako baimen eskariak aurkeztu dira eta Estatuaren zerbitzuek balidatu dituzte.
  - Enpresentzako deialdia abiatua da. Lanak 2019an eginen dira.
- Euskal Kostaldea-Aturriko Ad'AP-HPEZa:
  - Bururaturik dira Itsas Etorbideko 47ko lanak, CTE eraikina A, Montaury etxea, Laket portuaren kapitandegia, Izarbel Teknoguneko Etxea.
  - Baionako Arteen Hiriaren Entzunaretoko lanak aitzinetik egin dira.
  - Elkargoaren Egoitzako eta haren eranskinako lanak, Baionako Arteen Hiriko lanak, CCR Biarritz egin bidean dira.
- Hazparne Herrialdeko Ad'AP-HPEZa:
  - Baigurako aisialdi gunea: kanpoko sarbideetako lanak eta seinaletika landu dira.
- Zuberoko Ad'AP-HPEZa:
  - Egin bidean dira Mauleko Zerbitzuanitzeko Zentroko lanak, Mauleko Haur Txikien Gunekoak, Gunearen egoitzekoak, Barkoxeko Osasun Etxekoak, Irabarneko mintegikoak, Atharratzeko Zerbitzuanitzeko Zentrokoak eta Alozeko Haur Txikien Gunekoak.



## **BAZENEKIEN?**

Helgarritasun Programaturako Agenda bakoitzerako jarraipen txosten bat egin eta prefektuari igorri behar zaio.

## **GILTZA ZENBAKIAK**

**156 340:** eurokoa da Errobi Eremuaren eraikinak helgarri egiteko aurreikusi diren lanen diru kopurua.

**6:** dira Estatuak lanak egiteko eman dituen urteak.

# ❖ LIFI teknologia ororen zerbitzura

## Testuingurua

- Elkargoak ekonomia garapenaren, berrikuntzaren eta ikerketaren aldeko asmodun politika darama. Berrikuntza politika hori bere ekimen guztietan sartzen du, ororen onerako den zerbitzuaren kalitatea sortzeko asmoz. Asmo hori ikusmolde unibertsalaren nozioaren bidez gauzatzen da guztiz, helgarritasunaren alorrean bereziki jokatu.
- LIFI (Light Fidelity) teknologia garapen betean da; informazioa igorle baten eta hartzaile baten artean argi seinale batez igorri eta trukatzeko aukera ematen du. Batez ere LED teknologia baliatzen duelako (argi ekonomiko eta iraunkorra, hirien argizatze molde estandarra bilatzeko bidean da) LIFI teknologia, epe labur-laburrean, hiri konektatuaren eraikitzean ezinbesteko «adreibila» izan liteke.
- Argiztapen sareek estaldura geografiko egokiena bermatzen dute, hala barnean nola kanpoan, azken erabiltzailearengandik eta haren beharretatik ahal bezain hurbil den interfazea proposatuz, bai eta konektaturik diren edo biharkoan konektaturik izateko bidean diren hiri gauza guztietatik ahal bezain hurbil ere.
- Oraindik lehen urratsak ematen ari da LIFI teknologia baina aukera anitz uzten du ikustera, bereziki helgarritasunerako: komunikabideen euskarri guztiak (bideoa, audioa, idazkiak...) heda ditzakeenez, hartzaile bati ez uzteko aukera ematen digu, zeinahi delarik ere haren gaitasun maila edo ezintasun maila. Hartara, zerbitzu egokituak eskaini litezke, nor bakoitzarentzat egokitu litezkeena, ikusmolde unibertsaleko urraspide baten izpirituarekin.

---

## Erabili diren baliabideak eta metodologia

---

- Helgarritasun Misiok gidatzen du dosierra, eta Elkargoaren Antolaketa Digitalaren eta Informazioaren Sistemaren Zerbitzuarekin eta Eraikinen Ondarearen eta Baliabide Orokorren Zuzendaritzarekin elkarlanean.
- Kontseilu Iraunkorrek 2018ko ekainaren 18ko erabaki batez onartu zuen ikerketa eta garapenerako hitzarmen bat sinatzea CEREMA zentroarekin (Arriskuei, Ingurumenari, Mugikortasunari eta Antolaketari buruzko Azterketetarako eta Aditu txostenetarako Zentroa).
- Hitzarmen horrek 3 urterako lotzen ditu bi aldeak. Alde biek, Elkargoaren proiektuen arabera, elkarrekin ezarri duten urteko eskuhartze egitarau bat du hitzarmenak.

---

## Proiektua

---

- Elkargoak egiazko beharrekin loturiko aplikazioen bidez entsea eta testatu nahi luke LIFI teknologia. Horren egiteko, jadanik badiren edo oraindik garatzen ari diren proiektuak baliatu nahi ditu, «LIFIn laborategiak» bilaka litezkeen toki pilotuak ukan nahiz.
- Esperimentazio horiek helburu argia dute, jakin nahi baita zenbateraino errepika litezkeen edota egokitu bestelako toki eta proiektuetara hor garatu diren aplikazioak eta zerbitzu eskaintzak, bereziki Elkargoak bere lurraldean daraman lana osatu eta joritzeko.

### BAZENEKIEN?

LIFI teknologiak ez dakar jadanik badugun argi artifizialak baino arrisku gehiagorik. Horregatik, gero eta gehiago ari dira leku minberak, hala nola haurtzaindegia, ospitaleak, eskolak, LIFI teknologiaz hornitzen eta ez WIFI teknologiaz.

# ❖ Obralaritzarako laguntza

---

## Testuingurua

---

- 2017an, Elkargoak Helgarritasun Misoaren arduradun lanpostua sortu zuen
- Misoaren zereginetako bat Elkargoaren eta haren kide diren herrien zerbitzuei helgarritasun araudia aplikatzen laguntzea da.

---

## Erabili diren baliabideak eta metodologia

---

- Helgarritasun Misoa Elkargoaren edota herrien zerbitzuek eskaturik aritzen da.
- Ipar Euskal Herriko lurralde osoa hartzen du.

---

## 2018ko lanak

---

- Elkargoaren zerbitzuek batez ere lanen baimen eskarien kasuan eskatu dute laguntza, plano gaineko iritzia emateko, gauzatzei buruzko iritzia emateko
- Elkargokide diren herriek batez ere helgarritasun programaturako agenden aurkezte metodologiari buruz eskatu diote laguntza Helgarritasun Misoari, helgarritasun programaturako agendetako lanen izaerari buruz eta lanerako baimenen eskaerei buruz.

---

## 2018ko lanak

---

- 2018an, honako herri hauek eskatu dute helgarritasun misioaren laguntza eta ukan dute e-posta bidezko arrapostu bat bederen:
  - Amikuze: Aiziritze-Gamue-Zohazti / Amorotze-Zokotze / Behaskane-Laphizketa / Ilharre / Ostankoa / Donapaleu
  - Errobi: Itsasu / Jatsu / Uztaritze
  - Garazi-Baigorri: Ahatsa-Altzieta-Bazkazane / Anhauze / Bidarra / Zaro / Gamarte / Irulegi / Donazarre / Donibane Garazi
  - Iholdi: Arhantsusi / Bunuze / Iholdi / Jutsi
  - Errobi Aturri: Milafranga / Lehuntze
  - Bidaxuneko Herrialdea: Akamarre
  - Hazparneko Herrialdea: Heleta / Bastida / Makea / Mendiondo
  - Zuberoa: Aloze-Ziboze-Onizegaine / Maule / Urdiñarbe
  
- 2015az geroztik, Hego Lapurdiko Eremuko 12 herriek helgarritasun misioaren laguntza jasotzen dute.

### BAZENEKIEN?

Helgarritasun misioak daraman obralaritza laguntzeko zerbitzua Elkargoaren eta haren kide diren herrien zerbitzuentzat da soilik

### GILTZA ZENBAKIAK

**43:** dira 2018an helgarritasun misioaren obralaritza laguntza ukan duten herriak.

# ❖ Formakuntza

---

## Testuingurua

---

- 2017an, Elkargoak elgarritasun misioaren arduradun lanpostua sortu zuen
- Misioaren zereginetako bat Elkargoaren eta haren kide diren herrien zerbitzuei helgarritasun araudia betetzen laguntzea da.

---

## Erabili diren baliabideak eta metodologia

---

- Helgarritasun misioak herriko etxeetako idazkarietzako 4 formakuntza modulu eman ditu plantan:
  - Auzapezaren erantzukizuna helgarritasunari dagokionean
  - Helgarritasun gaietan bete behar diren formalitateak
  - Nola bete lanen baimen eskaera bat
  - Helgarritasun programaturako agenda eta helgarritasun erregistroa
- Bilkurak eremuetan proposatu eta antolatzen dira.

---

## 2018ko lanak

---

- 2017an hasi ziren formakuntzak 2018an ere ari dira egiten.
- Nahi ukan duten Amikuze, Garazi-Baigorri, Iholdi-Oztibarre, Bidaxune Herrialdeko eta Hazparne herrialdeko eremuetako idazkariak lau formakuntza moduluak egin dituzte. Bilkuretan, gaiak libreki atera litezke eta ororen onerako diren solasak ekartzen dituzte.
- 2019an formakuntzak egiten jarraituko dira oraindik egin ez diren eremuetan (Euskal Kostaldea-Aturri - Errobi – Errobi-Aturri).

## **BAZENEKIEN?**

Formakuntza modulu bakoitza bururatzean, formakuntzarako euskarria, ereduako dokumentuak eta informazio osagarriak eremuko herriko etxe orori igortzen zaizkie

## **GILTZA ZENBAKIAK**

**122:** dira formakuntza horietan parte har dezaten deituak izan diren herriak.

# ❖ Turismo eta Ezintasuna labela

---

## Testuingurua

---

- «Turismo eta Ezintasuna» Estatu markak, Turismo eta Ezintasuna labeltzat hartu ohi denak, turismo egokituko eskaintza garatzeko helburua du, egiazki orori zabalik izanen dena eta ezintasun bereziren bat dutenei (entzunezkoa, ikustekoa, burukoa, motorea) autonomoki, bakarrik edo senideekin, bidaiatzeko aukera emanen diena. (Ezaugarri nagusien ERP-29082016 baldintza agiriko idatz-zatia).
- Halatan, bada, «Kirol eta Zerbitzuen Hornikuntzak» Zerbitzuak, «Hizkuntza Politika, Herritarrentzako Zerbitzuak» Zuzendaritza Nagusiaren pean, interesgarritzat hartu du horretarako gai ziren Elkargoko igerileku hornikuntzek eska zezaten labela
- Misioaren zereginetako bat Elkargoaren eta haren herrien zerbitzuei helgarritasun araudia betetzen laguntzea da.

---

## Erabili diren baliabideak eta metodologia

---

- Helgarritasun misioak Kirol eta Zerbitzuen Hornikuntzen Zerbitzuak eskatuz gero hartzen du eskua. Eraikinen Ondarearen eta Baliabide Orokorren Zuzendaritzari laguntza ematen dio labela eskuratzeko behar diren lanak egiterakoan.

---

## 2018ko lanak

---

- 2018an, Kirol eta Zerbitzuen Hornikuntzen Zerbitzuak nahi ukan du Donibane Garaziko igerilekuak eska dezan labela. Lan txiki zenbait egin da ezintasunen bat dutenentzako aldagela labelaren baldintza berrietara egokitzeko.



---

## 2018ko lanak

---

- Lekuaren diagnostiko bat egin zuen irailean MOUMIET jaunak (Lurralde Agentziaren Turismo eta Ezintasuna ebaluatzailea). Lurralde Batzordean, 2018. urtearen hondarrean, labela eman zitzaion 4 ezintasun motetarako (entzunezkoa, kognitiboa, ikustekoa, motorea).
- Formakuntzak, 2019an, oraindik egin ez diren eremuetan (Euskal Kostaldea-Aturri - Errobi – Errobi-Aturri) egingen dira.

### **BAZENEKIEN?**

Turismo & Ezintasuna labela gutxienik 2 ezintasun motetarako eskura liteke.

Labeldun jardunak labelaren baldintza agirian zerrendaturik dira. Badira baldintza agiri bereziak establimenduaren jardunaren arabera.

### **GILTZA ZENBAKIAK**

**5:** dira labelaren baliogarritasun urteak. Bost urtez behin, eraikinak kontrolatzen dira labela berritu baino lehen.

# ❖ Tram'bus

---

## Testuingurua

---

- Elkargoak Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatua sortu zuen eta sindikatu hori da Ipar Euskal Herriko eta Tarnoze (40) hiriko lurraldeko mugikortasunen agintaritzaren antolatzailea.
- Hartara, sindikatuak jarraipena ematen die lehengo Euskal Kostaldea-Aturri eta Hego Lapurdi elkargoek zeramatzaten politikei.
- Baionako hirigunean Tram'bus bat plantan emateak erakusten du lurraldean eraman diren politikekin jarraitzen dela

---

---

## Erabili diren baliabideak eta metodologia

---

- Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatuaren zerbitzuek daramate dosierra. Batzordekideek eta bereziki lantaldekoek parte hartzen dute Tram'busa gauzatzen.

---

---

## 2018ko lanak

---

- Mugikortasunen Sindikatuak Helgarritasunerako Herriarteko Batzordearen lantaldeari dei egin dio Tram'busaren prototipoa bisita dezaten eta ibilgailuaren antolaketan gaineko iritzia eman.

---

---

# 2018ko lanak

---

- Bisita horretan izan dira Claude OLIVE Mugikortasunen Sindikatuaren lehendakaria, Daniel OLÇOMENDY Helgarritasunerako Herriarteko Batzordearen lehendakaria, bai eta ezintasun bakoitzeko elkarteak eta hautetsiak.
- Bisita horrek zenbait ohar egiteko aukera eman du, bereziki honako hauek:
  - Ikusteko kontrasteak
  - Seinaletika
  - Lehentasunezko lekuetarako tokia
- Bisitaren agiria igorri zaio Mugikortasunen Sindikatuari zenbait puntu hobetzeko proposamenak ekarriz.
- Sindikatua Tram'busa asmatzen duen enpresarekin ari da lanean antolaketak ahal bezain onak izan daitezen. Ibilgailuaren aurkezpen berri bat egingen zaie lantaldekideei 2019aren hastapenean.

## BAZENEKIEN?

Lehentasunezko lekuak erakusteko logo biribil bat dago, gibelalde urdinaren gainean makil zuri bat daraman pertsona ageri duen piktograma zuri batekin.

Nazioarteko hitzarmenek behartzen dute leku horiek ibilgailuaren aitzinaldean koka daitezen beti, gidariaren aldeko atetik ahal bezain hurbil.

Aulki gurpildunean doazen erabiltzaileentzako lehentasunezko lekuak erakusteko logo biribil bat dago, gibelalde urdinaren gainean aulki gurpildunean doan norbait ageri duen piktograma zuri batekin.

Mugikortasun murriztuko norbait agertzean, murriztasun gabekoek lekua utzi behar diote.

## GILTZA ZENBAKIAK

**2019:** da Tram'busa zerbitzu ematen hasiko den urtea.


**2:** dira Tram'bus ibilgailu bakoitzean aldi berean bidaia litezkeen aulki gurpilduneko bidaiariak.

**4:** dira Tram'bus ibilgailu bakoitzean dauden lehentasunezko lekuak

# ❖ Laburki

## Garapen iraunkorra

- Garapen iraunkorra oraingo beharrei erantzuten dien baina betiere etorkizuneko belaunaldiek ukan ditzaketen beharrei erantzuteko ahala arriskuan jarri gabe erantzuten dien garapen moldea da.
- Planetaren baliabide mugatuak hartzen ditu kontuan eta elkarri loturik diren hiru dimentsiotan aritzen da:
  - Ingurumen dimentsioa. Giza jardunen garapena natura baliabideak berritzeko ahala ez kaltetzeko moduan edota ekosistema zerbitzuen funtzionamendu ona kaltetu gabe egin behar da;
  - Gizarte dimentsioa. Gizartearen garapen harmoniatsuak gizarte kohesioa behar du, pertsona orok eskura ahal ditzan oinarritzko baliabide eta zerbitzuak (osasuna, heziketa);
  - Ekonomia dimentsioa. Ekonomia garapenak muturreko pobrezia murrizteko eta ahal beste jendek duinki ordainduriko ekonomia jardunean aritzeko aukera eman behar du.
- Hartara, garapen iraunkorraren «3 zutabeak», maiz, horrela adierazten dira eskematikoki, eta haiei «governantza» eskaria lotzen zaie, hau da, eragile guztien parte hartze eta elkar aditze beharra (Estatuak, lurralde kolektibitateak, eragile sozioekonomikoak, gizarte zibila, herritarrak).



Ekologikoa,

vivable = bizigarria,  
Viable = bideragarria,  
Durable = iraunkorra,  
Soziala, Ekonomikoa,  
Équitable = Bidezkoa

- Garapen iraunkorreko urraspideek dituzten helburuak -«finalitate» ere deituak- bost dira
  - Klima aldaketaren aurka borrokatzea;
  - Bioaniztasuna, inguruneak eta baliabideak zaintzea;
  - Lurraldeen eta belaunaldien arteko elkartasuna eta gizarte kohesioa bermatzea;
  - Gizakien loratzea laguntzea;
  - Ekoizte eta kontsumitze modu arduratsuen araberako garapen dinamikak abian ematea.
- Helgarritasuna garapen iraunkorreko urraspideen erdigunean da. Haren kontuan hartzea gizarte kohesio helburuei, elkartasun helburuei eta nor bakoitzaren loratze helburuei arrapostua ematea da
- Kolektibitateak erantzukizun handia du horretan. Berari da egiten dituen ekintzetako bakoitzean helgarritasunaren dimentsioa gogoan hartu eta sartzea. Hala egitea lurralde iraunkorrago eta elkartasunezkoago bat eraikitzearen alde aritzea da.

---

## Mugazgaindikoa

---

- Elkargoa eragile da JACOB@CCESS proiektuan. Proiektu horren asmoa Donejakue bideetan ezintasun bereziren bat dutenentzat helgarri diren kultura eta turismo azpiegituren mugazgaindiko sarea garatzea da.
- Mugazgaindiko hiru lurraldetako (Jaca, Iruñea eta Izura) 6 partzuer biltzen ditu: Jaca-ko Herriko Etxea (gidaria), Iruñeko Herriko Etxea, Euskal Hirigune Elkargoa, EVAH elkarte (Donibane Lohizune), ATADES HUESCA elkarte (Jaca), KOINE fundazioa (Iruñea).
- Sareak 4 azpiegitura ukanen ditu:
  - Interpretazio zentro bat Jaca-n,
  - Beilari ezinduen aterpetxe bat Martillué-n (Jaca-tik hurbil)
  - Interpretazio zentro bat Iruñean
  - Interpretazio zentro bat Izuran.
- Interpretazio zentro bakoitzak lurraldeari loturiko kultura edota ondare gai berezi bat landuko du (gastronomia Izuran; Erdi Aroko historia eta Donejakue bideak Iruñean; kultura, artea eta ondarea Jaca-n). Azpiegiturak elkarri loturik izanen dira, guztiok partekatuko baitituzte ezintasun bereziren bat dutenentzat helgarri direla azaltzen duten tresnak eta komunikazioa.

# 2018ko txostena

## Euskal Hirigune Elkargoaren Helgarritasunerako Herriarteko Batzordea

Zeinahi argibidetakako, hona jo ezazu:

Claire SARTHOU – Helgarritasun misioaren arduraduna – Euskal Hirigune Elkargoa  
[c.sarthou@communaute-paysbasque.fr](mailto:c.sarthou@communaute-paysbasque.fr)